

tokian tokiko elizetatik asi eta Jainkoaren Erri oso-osoak erabakia, baizik.

EUROPA'KO APAIZ-TALDE GUZTIEK BATERA ONTZAT EMANDAKO AGERPEN NAGUSIA GOIRE'n 1969'go uztaillaren 8'an.

Orra beste aitortpen bat, au ere latza. Ez, ordea, Olanda'ko batzarraren eskabideei buruz izparringietan ikusi ditugun arinkerien an-

tzekoa. Ageri denez, askoz sakonagoa, arazoari sustraitik eltzen diona.

Gauza bat oso garbi dago, noski: Apaizgintza eta ezkongetasuna zearo bi gauza ezberdiñak dirala eta berenez ez dagozala batean alkarturik.

Bestalde, ez ote da askotan naiko egia, lege baten bidez beartutako ezkongetasuna, besterentzat sinisgarri eta sinisterazteko bide izateko ordez, kaltegarri eta eragozpen dala?

Zergatik? Legeak al du errua? Apaizkiok al dugu errua? Zergatik?

Gaztañaga'r Jexux'ek



Maite-kanta

(Gurutzeko Juan deunenaren
Cántico Espiritual'en azalpena)

Sarrera

Auxe da Gurutzeko Juan deunaren poemarik ederrena, **Maite-kanta** deritxona. Luze samarra, baiña ondoen landua. Jainkoaren zerbitzuan sartu dan arimearen bizitza, argi ta ditzikor eskintzen dauku berrogei ahapaldi edo estrofatan.

Gure arimea pixkaka santutzen da, ez beingo batean. Gorputza janaz azi ta aunditu egin oi da; arimea be, gu saiatu ta alegindurik, santutasun-bizitzan azi ta aurreratu egin oi yaku. Jainkoak santu, loi barik eta beti barri nai gaitu. Ortarako, maillaz mailla igonik santutzeko, baditugu bideak. Zeintzuk? Ots: zetan ete dago santutasuna? Jainkoaz

batzean. Eta ortarako bideak doguz. Gurutzeko Juan deunak, oso bide egokiak erakutsi euskuzan bere liburuen bitartez; eta ez dira gatzak berak ebagitako bideok, labur, errez eta lauak baiño.

Arimeak lenengo garbitu egin bear dau, Jainkoaz batzeko. Garbiketa au zelan burutu darakusgu Juan'ek bere **Igoera** ta **Gau illuna** deritxen liburu bietan. Ondoren, arimeak Maiteaz daukazan artu-emon gozoak azaltzen dauskuz **Maite-kanta** ta **Sugar bizia** deritxenetan. **Maite-kanta'n**, arimeak, Jainko-bidea artu ta maillaz mailla azkenengoraiño eldu arte dagizan pausuak zeatz eta meatz dakarskuz.

Iru bide —garbitzekoa, argitzekoa ta bat-egitekoa— ikutzen ditu gogo-jardun onetan, naitaez igaro ta urratu bearak. Lenengoan, asibarriak dabiltz; argituz aurrera doazanak, bigarrenetan; eta, ezagutzez eta maitatzez gero ta batago Jainkoaz egiñik, gogozko ezkontza dagienak, irugarrenetan. Iru bide oneik, alan be, ez dira alkarrengandik oso bereziak, bide bat beraren zati baiño. Beraz, ezin dogu esan: «Emen amaitzen da bat, emen asten da bestea». Bide orreitan dabiltzanak ba-dabez, bai, euren etenaldi ta goraberak; gaur aurrera ta biar atzera egiten dabela, esan bear. Eta ortxe dabiltz jagi ta jausi, euren kautako burruka latzean.

Deika

Arimeak, Jainkoagana biurtu ta Aren zerbitzuan asiaz batera, ainbat gauza ta egi gogora ekarri ditu: bizia laburra dala, zeru-zidorra estua, munduko gauzak uts-guzurtiak, danak dauaia amaia ta azken-kontua zeatza... Bestaldetik, Jainkoak egiña da bera, ta Ari zor dautso daukan guztia; Kristo'k be bere odolez erosi eban. Eta zer egin dau berak, ainbeste mesede ta maitasuni erantzuteko?

Orrenbesteko esker-txarrari osakaia ipinteko, bertatik jagi ta zerbait egitea erabagi dau. Jainkoa, baiña, urrindua ikusten, eta gordeta lez. Arima gaixoa munduko izaki artean ibilli yatzu luzaro, bere Egille samurragaz azturik. Bildur izugarria damotsa onek, baita barne-min

bizia be; ta, ainbat galpen eta arriskuz esitua bere burua ikusiaz, beeko gauza ta zorakeri guztiai agur dagitse: ez egunik ez ordurik geiago luzatu bage, Jainkoz zauritua, garraxi bizitan asten da bere Maiteari deika. Lenengo estrofan, onela diño:

Nun baiña gorde zara,
Maitea, ni emen oiuz itxirik?
Ni zaurituta, iges
zoaz oreiña legez;
emen nozu deika, ta Zu joanik.

Arimea Maiteaz egon nairik dabil, oroi gozoz, intzirika. Arek maitez zauritu dau, ta Agaitik itxi dauz izaki guztiak. Eta, oindiño be, miñetan, Maiteaz alkartu barik. Katigu daukan aragia itxi gura dau; larri dago, betirauneko aintzaz gozartu ta poztu nairik. Errukarri bai arima gaixoa!

Maitearen urriña eroan eziñik, zauriaren miña ezin gaindituz, indar biziz dagitso deadar: «Nun gorde zara, Maitea?». Kristo, izan be, Jainko gordea da, Aitaren altzoan bizi da, antxe dau bere izatea. A, oster, eztau giza-begiak ikusi, ezta giza-adimenak ulertu be. Ortik atera ta jakin gengike: mundu onetan, arima batek, Jaunagandiko ar-emon, agiri, barri jaso ta gurenak euki arren, guzti orreik ez dirala egungo be Jainkoa bera, ez dabela Aregaz zer-ikusirik: Jainkoa, zer guztiok gora-bera, ezkutua dala arimearentzat. Eta arimeari egoki yako beti be gordea billatzea, Maitea gorderik baitago.

Arima egarritua! Nun aurkitu ura Senar maiteak sorduriko egarri ori itoteko? Bizi gareala be ba-dira ur-tanta batzuk egarri ori, osoan ezpada be, zerbait arintzeko. Bai, txastatu leike arimeak zelanbait Kristo'ren gozotasuna. Ortarako, Kristo nun gordeta dagon jakin bear, ara ta ona aizea joka alperrik ibilli ez daiten.

Kristo, arimearen Senar maitea, nun ete dago ba gorderik? Itza, au da, Jainkoaren Semea, Aitagaz ta Espiritu Santuagaz bat, izatez ta andi-andirik, gure arimearen muin-muiñean dago gordeta. A idoro bear dauanak be ba, ona zer egin bear dauan: zale-griña ta gogoz gauza

guztietatik urtenaz, bere barru-barruan sartu ta Kristo dagoan tokian bertan kiribildu ta gorde. Kanpoko zerak begoz ez ba'lira lez. Ez billatu ortik zear zeure barruan daukazuna. Zeure barruan daukazu Jainkoa gorderik, eta ortxe billatu bear dozu egiazko maitasun beroz. Kristo'k berak diñotzu: «Jainko-erria zeuen barruan daukazue» (Luk., 17, 21). Eta Paul apostoluak: «Zuek Jainko biziaren etxe zarie» (2 Kor., 6, 16).

Pozgarri yako arimeari, Jainkoaren etxea dala jakitea. Pekatu astu-nean egonik be, Jainkoa beti dauko beragaz; grazian bizi ezkerroz, are geiago. Poztu, beraz, ta ez ezer billatu kanpoan; barruan daroazu dana, geiago. Poztu, beraz, ta ez ezer billatu kanpoan; barruan daroazu dana, aberastasunak, atsegiñak, pozak, ots, Jainko-erreñua, zeure Maitea. Zeren billa onezkero? Ur-ur daukazu; sar zaitez zeure barruan, eta artu atsegin; gurtu ta maitatu or. Etzaitez ibilli Aren lorratz billa, oiuka ta zotiñez. Urrago ta ariñago ez dozu aurkituko, zeure gogo-barrenean baiño.

Jainko ostendua

Alan be Maitea, zeure gogo-gela ixillean euki arren, gorderik bizi da. Nun dagon jakitea, orraitino, ezta gixxi. Oendiño diñotzu: «Bai, ba-dakit barruan daukodana; baiña zelan ez dat euki arren?» Ona zergaitik: Gordeta dago, ta zuk be, A somatu ta aurkitu, maite ta ostendu bearra daukazu. Nun baiña? Zeure izatearen ostendua. Zeure bat aurkitu nai dogunean, izan be, gauzea bere dago. Oendiño eldu bearko dogu, ta gordetako gauza baizen gordetarik egia. Be billatzen genduna aurkitzean, gauzea baizen gordetarik gagoz gu ba.

Zure Senar maitea onela edo da: soloan gordetako gordairua (Mat., 13, 44). Merkatarri zurrak eukan guztia emon eban axe erostearren. Zuk be, gauza guztiai agur egin ta ateak itxirik, sar zaite zeure gogo gela ixillean, eta egiozu otoi zure Aitari ezkutuan. Eta Agaz gorderik zagozala, ezkutuan begira daukazun Aita somatuko dozu, gozo baizen bizi; ezkutuan nabari izan eta maitatuaz, ezkutuan izango dozu Aren atsegiña, miñak ezin-esan alakoa.

Arimeak, naitaez, bere barruko ostendera, zurkulu edo gorde-leku ixillean aurkitu bear dau Maitea, antxe dago-ta. Orduan be, ez edozelan gero, fedez ta maitasunez baiño. Ez, ez dozu mundu onetako ezertan billatu bear, ez txasta ez adi. Beste zerbait da. Orreik, fedea ta maitasuna, dozuz itsu-mutil bi guztiz egokiak; eurok zuzenduko zaitue, ez bildur izan, or Jainkoa ostendurik dagon toki ezkutuetan zear.

Fedea emen ezta garrantzi gitxikoa. Jainkoa bera da ezkutuen mamin; siñismena dozu misteriz beteriko ezkutua, ta Jainkoa da fedearen guna, mamiña. Ta Jainkoak berak diñotzu Isai igarlearen bidez: «Toki ezkutuetan gorderik dagozan ezkutua emongo dautzudaz» (Is., 45, 3). Fedea da ezkutu ori. Arimea onen bidez doa Jainkoagana. Fedea da Agana garoazan oiña, ta maitasuna Agana eskutik zuzentzen gaituna. Bebil arimea siñismenezko ezkutua arakatzen, eta maitasunak estalgetu ta agiri-azoko dautso siñismenak bere baitan daukana, au da, arimeak ain bizi opa dauan Senar maitea. Emen beean be bai? Baita; emen, lurrean, Jainko-alkartzezko doai ta grazi aparteko baten bitartez, eta, beste bizitzan, izatezko aintzaz; iñolaz bere ez ezkutuan, agiri-agian eta arpegiz arpegi baiño.

Alan eta guzti be, ori eldu artean, maitasunezko Jainko-alkartzez zeru ederrean atseginkor bizi izatea lortu artean, arimearentzat beti izango da Jainko ezkutua —Jainko Aitaren kolkoan bai dago gorderik—, ta berezko yako etenbako itauna ta Jainko-billa ibilte asperbakoa. Billatze ori ondo datorkio arimeari; orrela, ba, asko be asko goratu oi dau Jauna, ta ixil sakonean aurkitzen dan Orregana ez giti urreratu be.

Gure barne-almenak ez dira zer aundirik, baiña ortan, Jainkoa eza-gutu ta ulertzen jardun bearrean gara euren indarren giñoan. Jainkoaz zerbait ulertzen dogula-ta, baiña, ez gaitezaz poz-atsegiñetan ibilli; Aretzaz ulertzen ez dogunean baiño geiago beintzat. Ezta, ez gaitezaz Jainkoaz somatu naiz ulertzen dogun ori maitatu ta gozartu nairik, alegiñik egin be; ez, are geiago, Aretzaz somatu ta ulertzen ez doguna maite izan dagigun. Orixe dogu, ba, Jainkoa fedez billatzea.

Ezkutua ta eldu-eziña da Jainkoa. Ta, guk somatu, aurkitu ta ulertu dogula uste izanik be, beti euki bear dogu ezkututzat eta ezkutuan gor-

derik Aren zerbitzuan eta morroitzan jardun. Ez gaitezaz egundo izan meko, Jainkoa ez ulertu ez somatu egiten ez dabenean, A urriñago ta ezkutua dogula uste daben arein arteko. Bestera da geienik: illunago ulertu ta Arengandik urrago. Ederto diño Dabid erregeak: «Illunpeaz ulertu ta Arengandik urrago. Ederto diño Dabid erregeak: «Illunpeaz ezkutu-leku egin eban, beretzat» (Sal., 18, 12). Arengana urreratzean, ortaz, illuna sentidu ta somatu bear dogu geure begiaren argaltasunean.

Arimeak beti zein zori txarrean zein gogozko ugaritasunean, Jainkoa ezkututzat euki bear dau, ta Ari oles egin deadarka:

**Nun baiña gorde zara,
Maitea, ni emen oiuz itxirik?**

Maitea diñotsa, bere eskera geiago lotzeagaitik. Izan be, Jainkoa maitatua danean, errez ta bizkor joan oi da dei dagionarengana; maitatzailearen eskaria eztau entzun barik izten. Juan deunaren bitartez onela diñosku: «Nigan ba'zagoze ta nire itzak zuengan ba'dagoz, eska-ala eska, izango dozue» (Joan., 15, 7). Eta noiz deitu daíkeo, egiaz, Maite? Arimea Jainkoaz bat-bat egiñik dagonean, kanpoko ezertaz kezkatzen eztenean, gogoz ta biotzez Arengan isatsirik deñonean, izan be, ederto asko Sanson'ek Dalila'ri: «Zelan diñostazu urraile bertan, zure biotza nigaz ez dalarik?» (Eb., 16, 15). Eta biotza alaituan, gogoa ta griña be ba-diñogu.

Ementxe dago gure eskabide askoren untzea. Jainkoari sarri deitzen dautsagu Maitea, baiña bene-benetan ezta gure Maitea. Zer dala-ta? Esan dogu: gure bizitza ez daukagu osorik Jaunagan jarrita; gure eskaria olan ezta Jainkoaren begi aurrean bear leuken baizen baliotsua. Ta, jakiña, ez dogu ain arin eskuratzen eskatu daroaguna, baiña bai aspertu barik otoitzari ekiñik, olan geure ezpiritua geiago ta jarraiago Jainkoaz eukitera eldu oi gara-ta. Biotza be Arekiko maitasun griñaz osoago egin oi yaku. Ta, ba-dakigu, Jaunagandik ezta ezer jadesten maitasunez ezpada.

Intzirika

Biotz maite bik alkar espa. Ta bananduta, alkarregandik urrun ego-teak, benetako intziri-oiua sor-azten arein biotzetan. Mistika zelaian be, arimeak eztau Jainkoaz kanpo ezertxo be maite, ez dautso ezek pozik ekarten, ez yako ezer atsedeen-bide. Ain zuzen, ezek pozik ez ekartetik ezagutu oi da arimeak Jainkoa maite dauala; ez, gauza guztiak batera eukita be, Aregaz ezik, eztau pozik izango; bai, ostera, poz geiago ta ase-ezago aurkitu. Zek dakartso biotzari atsegiña? Ez asko eukiteak, go-goa billois ta txiro eukiteak baiño. Ementxe datza maitasunaren betea.

Gero, Jainkoaren aintza agertzean, zeruan asetuko gara. Bitartean intzirika, ai-oska bizi bear; ez, negar-iturri ori ez yaku agortuko lur gaiñean. Alan be, zeruko aintzara orduko miazkatzen dogun intziri-jaki au itxaropenez gaiñezkakoa da. Arimeak orrelaxe dau biotz maitemindua; maitasunak zauritzen dauan tokian antxe dago egon be zauriaren intziria: deika dago, maiteagandik urrin dagola-ta. Arima gaixoaren oiubiziagoa da, batez be, Senarraren artu-emon gozo ezititik zerbait txastatu ta gazi-gazan ikusi ondorean.

Geziz zauritu eban Maiteak, odoletan itxi ta iges egiñik. Arrezkero bakarrik eta legor dago arima gaixoa. Deadarka ba-diñotso:

**Ni zaurituta, iges
xoaz oreiña legez.**

Ezta arrigarri irudi au. **Abesti bikaiñean** onela: «Nire Maiteak niri basauntza ta basauntz-kumea gogoratzen daust» (**Abe.**, 2, 9). Oreiña edo basauntza, bere gisako da, bakar-zale, zelai-landetatik igeska dabillena; ager-gordeak bizkor egin oi ditu. Kristo maitea be orrelaxe da: igeslari dabillena, ikustaldi gozoak egiten dituna. Arimea olaketan, poz emote-ko egin oi dautsozan agerraldietan jasoaz doa, baita oar-azten dautsozan urriñaldi ta oztasunetan maite-auzian ziurpetu be.

Esan dogu: maite diranak alkarregaz egon nai. Ezta arritzekoa. Orre-la ezpalitz, oiñaze ta atsekabe gordiña artzen. Au ba-dakie maitaleak.

Alkarregandik banatzea, beti latz. Banatzean, gaiñera, aziagotu egin oi da alkarreganako griña, joera ta irritsa. Kristo'k, alan be, bein-beingoko ikuste laburrez, arimea barnean zauritu ta iges dagi, basauntz ariñaren pareko. Ta onek berebiziko miña ezarten dautso izaki gaixoari.

Onako Jainko-ikustaldietan gogoak zauritu ta sutan izten dauen maitasunezko ikutu batzuk izan oi ditu. Arimea onek, suzko gezi antzera, zauritu ta alderik alde urratu ta zulaturik izten dau. Ikutu oneik dira berarizko maitasun zauriak. Gogoa zale-zale egin oi da, sutatu, maitegarretan kiskaltzeraiño. Igartu ta arbinduaz, bere baitatik atera-azten dau. Baita izakera barria artu-azo be. Penix egaztia erre ta ber-jaioten ei da: orrela arimea be.

Maite-oiñazez

Maitea ikusi; or arimearen irrika ta miña. Geiegizkoa deritxo maitasunak beragaz daukan jokabide iaia. Bere burua zaurituta ikusi arren, orrek ez dau ainbeste kezkatzen, zauriak zaurigarri bai yakoz; maitasunean penaz itxi daualako, or bere burua zaurituta errazoa. Indartsua-go jo ta ilteraiño zauritu ba'leu, gogoa beragaz orrela beintzat, bizitza ontan be, maitasun beragaz auziñaketa ikusiko eban bere burua.

Baiña iges egin eutson, «zaurituta itxiñak, iges joan yakon». Au da, Beragazko maite-zauriz lagata, oreiña balizen erin joanik, gorde egin yakon. Eta txit bizia gerta oi da sentipen au; arimea, bada, Jainkoak egin daroatson maite-zauri aregaz, bero ta bizi, bertatik jagi oi da Maiteaz jabetzeraiño, Aren ikutu ezta somatu eban ezkeror. Baita bat-batez sentitzen dau Maitearen urrintasuna be, ta berak opa dauan lez emen ezin eukia. Olan barru-barruan, biotz-muiñean senti oi dau Maiteagandik urrin egotearen larritasuna ta oiñazea.

Taiu onetako ikustaldiak ez dira gero Jainkoak arimea poztu ta atsegiñetan jarri oi dabezanen antzekoak. Areik osatzeko baiño zauritzeko, izan be, geiago egin daroe; bai, ezkutu gauzen barria biztu-azo ta leia

bizia geituaz, Jainkoa ikusi naiezko oiñaze ta griña be, ondorenez, biotz-barrurago sartu ta kemen-azi oi dabe. Maitasunezko barne-zauriak urtzen yatzuz, gogoari gustukor, ezti ta guragarri yakozanak. Zauskada oneik nai leukez arimeak, eta eurokaz ilten iraun; eurokaz egon, bai, miñetan izanda be. Bere kautatik atera ta Jainkogan sar azten bait dabe.

Zelan osatu zauriok? Maitasun-zauriak sendatzeko ez ei da osakairik, zauritu ebanak emona ezik. Arima zauritua, orixegaitik, zauria egin eutson suak bultz-eragiñik, zauritu eban Maitearen atzetik dabil deika, osatu dagiala Ari eskatuaz. Arimearen joate au era bitara aitu daikegu: Bata, gauza guztiak ezetsi ta itxiaz, eta bestea, bere buruaz aitzu ta, Jainko-maitasunarren, bere kautatik urten eta jasoaz.

Jainko-maitasunak, izan be, arimea egiz ikutzen dauanean, gorantza jaso oi dau, bera berez zer dan aitzu eragiñik ez-eze, beretik eta berezko era ta griñetatik atera ta Aren atzetik deika joan-azorik be bai. Onan edo diñotsa: «Ene Senar, zure ikutu aren bitartez eta maite-zauriz atera nozu, ez gauza guztietatik, baita neuretik be urten-eragin daustazu. Zeugana jaso nozu, Zeuri deiez jarririk etenbako oiuan. Onezkero beeko gauzaz oso erantzia naukazu, Zeuri bakar-bakarrik lotua».

Lurreko dan guztiz erantzia dalarik be, Jainkoaz ezta osorik alkar-tzen. Eta onek min damotsa. Joana yakola iruditzen yako arloa gaixoari. Izan be, Jainkoaren begiera xamur-bero somatu nai izan ebaneko, joana yakon iges, edo gordea. Ta aren larria! Batetik oso erantzia yakus bere burua, ta ezeri oratu bage bestetik; aidean lez maitasun miñetan, mundu-ko ta bere ezer barik eta Jainkoaren euspen barik. **Abesti bikaiñean** au diño Emazteak: «Jagiko naz, ta uria arakatuko dot; auzo ta zeia-ke zear nabilke, nire biotzak maite dauanaren billa. Billaka ler egin dot, eta ez dot aurkitu» (**Abe.**, 3, 2). **Jagi** nai **urten** onek, auxe esan nai dau: beekotik goikora jagi; edo bardin dana: maitasun ziztrin beekotik Jainkoaren maitasun goikora igon.

Baiña oar Emazteak diñoanari: zauriturik geratu zan arren, ez ebala billatzen ebana aurkitu. Orobat diño emen arimeak: Maite-miñez zaurituta dagola. Maite-mindua, jakiña, Maiteagandik urrindua dalako, beti

penetan bizi da. Maiteak bere maitearen eskuetan ipiñi dau eukan guz-tia, ta egin dautson emonaren ordain-saria opa dau. Gauza guztiak gal-du dauz, baita bera be maitearren; eta eztau oindiño aurkitu galpenaren irabazia. Ezpaita oindiñokarren maite dauanaren jabe.

Onera-bidean aurreratuz doazan arimentzat oso latza izan oi da oiña-ze au. Zauritu oneik gertatzen diranean, batez be. Ta Jaunak berak la-gundu ta gauzak ornidu ezik, il egingo litzakez gaixoak. Naimenaren ao-sabaia osasuntsu claukie onakoak; gogoa garbi ta Jaunagazko gauzetara ondo egokitua. Ta esanda itxi dogun onetatik, au da, eurak eraz gain opa daben Jakinko-maitasunaren gozotasunetik zerbait ernon izan yake. gozoki-pikor antzera miazkatu dagien. Tarte-zirristuz lez ager-azten yake ondasun esan-eziña, ta ez yake osorik emoten. Ortik datorkie autortu eziñeko min atsekabea.

Aita Onaindia



Sendia

Bere bikaintasuna

Jaungoikoak maite-maite dau sendia. Ta zelan ez Berak egiña baita? Jaungoikoak sortu eban sen-dia lenengo gizonak lurrean jar-tean; eta gizonak sendia loitu ta gaiztotu ebenean, Jaungoikoak Be-rak berrezarri eban. Bear-bearre-koa da sendia gizonak munduan bere elburua betetzeko.

Urnea ezertxo barik, dana bea-rreen dator mundura; ezjakin, in-darge. Sendiaren beroa, laguntza bear ditu bizitz-bidean aurrera egi-teko.

Bear-bearrekoa da orobat sen-diari buruz. Sendia gizartearen sor-tze izanik bere euspen eta zaipe be ba-da. Sendia Estadua baiño le-nagokoa da. Lenago ba-ziran sen-